

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2012ko urtarrilaren 5a. IX. urtea. 2.337. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Lara Arruabarrena Tenislaria

«laz lehen 200 postuetan sartu nahi nuen eta 170. amaitu dut; urte ona izan da»

Australiako Irekiaren aurrea sailkapena jokatu du datorren astean Lara Arruabarrena tenis jokalaria tolosarrak; hiru partida irabazi behar ditu lehiaketa ofizialean sartzeko

Lehenengo aldia da Australian jokatu duena, baina beste hiru Grand Slam-etan parte hartu du; aurtengo helburua WTA sailkapeneko lehen ehun postuetan sartzea da **03**



Mende laurdena ospatzeko ekitaldi ugari antolatu ditu Kirikiñok

Tolosako aisialdi taldeak erakusketa, DVD proiektzioa eta argazki lehiaketa antolatu ditu, besteak beste, datozen hilabeteetarako; maiatzean Kirikiño eguna ere egingo du **02**



Ekitaldi ugari egin zituzten atzo arratsaldean. I. GARCIA

Etorkinentzako euskara eskolak antolatu ditu Alegiako Udalak

Otsailetik maiatzera izango dute euskara doan ikasteko aukera; hilaren 13a da izena emateko azken eguna **06**

Castrok bederatzi urteko zigorra jaso du eta Garmendiak absolutzioa

Billabonatarrak 2009an Lazkaoko PSEren egoitzan lehertutako bonbarengatik epaitu dituzte **06**

1985ean bost lagunek sortu zuten, gaur egungo Kirikiño aisialdi taldea. 25. urteurrenaren harira, egitarau berezia aurkeztu dute.

Mende laurdena aisian heziz

Itzea Urkizu

Kirikiño aisialdi taldeak 1985-1986 ikasturtean eman zituen bere lehen pausoak; Txan txangorri zuen izena garai hartan. Hasi berria den 2012. urte honetan beteko duten 25. urteurrenaren harira, egitarau berezia aurkeztu dute taldeko arduradunek.

Iazko urte hasieran begirale batzordea osatu zuten antolakuntza lanetarako, eta ezer baino lehen bi helburu nagusi finkatu zituztela azaldu du Juanma Carretero arduradunak. Batetik, eskerrak eman nahi dizkiete, urte hauetan guztietan beren denbora eta gogoia taldeari eskaini dioten begirale, guraso, jostun, garraiolari eta abarrei; era berean, «25 urte urtero betetzen ez direnez», festa giroan ospatu nahi dute 2012. urte hau.

Bide horretan, atzo arratsaldean festa antolatu zuten Hirukide Jesuitinen ikastetxean, 10 urtetik beherako haurrentzat. Egitaraua, ordea, maiatza bitarte luzatu dute, eta argazki lehiaketa, Kirikiño eguna, txaranga eta erakusketa izango dira, besteak beste. Azken jarduera honek, erakusketa, lan handia sortu diela nabarmendu dute arduradunek; 25 urte hauetako argazki asko paperean edo diapositibetan gorde-tzizuten, eta guztiak eskane-

retik pasatzen aritu dira erakusketarako.

Oinarri sendoetatik abiatuz

Apaiza Eskolapioek Orendainen zuten etxera irteerak egiten zituzten garai hartako ikasleek, eta txango haietatik abiatuta, aisialdi taldea sortzea bururatu zitzaizen orduko begiraleei. Antxon Iglesiasek irakasle ikasketak bukatu berriak zituen, eta Eusebio Losada apaizaren laguntza, UBILko Xabi Espina, Andi Sanchez, Jolanda Perales eta Irene Larraza ikasleekin batera sortu zuten lehen taldetxoa.

Hastapenetako urte haietan finkatutako helburu berak ditu gaur egun ere taldeak: pertsonak hezten laguntzea da euren nahia, fedean bizitzeko eta gizartearekiko konpromisoa sustatuz. Helburu hauek lortzeko gakoak guraso nahiz gazteen prestutasuna, eskolaren laguntza eta neska-mutilak zaintzea izan direla azpimarratu dute.

Guztira 220 begirale eta 6.500 neska-mutil taldeko kide izan direla kalkulatu dute Kirikiño arduradunek, eta hauek guztiak ere gonbidatu nahi dituzte aurtengo ospakizun jardueretara.

Kirikiñoren 25. urteurrenaren informazio eguneratua nahiz arropa berezia eskuratu ahal izateko, <http://25urteurrena.blogspot.com> helbidea bisitatu daiteke. tolosa@hitza.info



Juanma Carretero, Antxon Iglesias eta Xabi Gomez aurkezpenean. I. URKIZU

↓ Egitaraua

URTARRILAK 28-OTSAILAK 5

Erakusketa. Antonio Maria Labaien kultur etxean, aisialdi taldearen argazkiak, panelak nahiz DVD proiektioak ikusgai izango dira 17:30etik 20:30era bitarte.

OTSAILA

Inauterietako konpartsa.

Aurtengo gaia Willy Fog izango da, eta *Kirikiño*ko munduari bira izenburua jarriko diote konpartsari. Begirale ohi guztiei dei egiten diete bertan parte hartzea, 25. urteurrena dela eta, aurtengo konpartsa berezia izan dadin.

MARTXOA

Lehiaketa. Argazki lehiaketa antolatuko dute.

APIRILAK 21

18:00. Eukaristia egingo dute Jesuitinetan. Ondoren, txarangarekin kalejira egingo dute, eguna afari erraldoiarekin eta opari banaketarekin amaitzeko.

MAIATZA

Kirikiño eguna.



Gaztetxoentzat festa izan zen atzo. I. GARCIA



Helburu berak ditu taldeak sortu zenez geroztik. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua dago salgai: eguzkitzua da, eta lau gela, bi bainu-gela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua ditu. Interesa duen edonork, dei dezala 678 26 76 57 telefono zenbakira.

Imanol Garcia

Gaur aterako da Lara Arruabarrena (Tolosa, 1992) Australia aldera Bartzelonatik. «Nekatuta» iritsiko dela esan du, ostiral iluntzera arte ez baita iritsiko. Datorren astean Australiako Irekiaren auresailkapena jokatuko du.

Lehenengo aldiz jokatu behar duzu Australiako Irekian?

Bai, lehenengo aldia da auresailkapena jokatuko dudala. Hiru partida irabazi behar ditut txapelketaren azken koadrora iristeko.

Grand Slam-eko txapelketa batean parte hartzen duzun lehenengo aldia izango da?

Ez, aurreko urtean beste hiru Gran Slam-etan parte hartu nuen, auresailkapenean. Besteeetan ere berdina izaten da, azken koadrora iristeko hiru partida irabazi behar dira.

Lortu zenuen partidarik irabaztea beste txapelketetan?

Ez, hiruetan lehenengo partida galdu nuen.

Zer egin behar da Grand Slam-eko txapelketa batean sartzeko?

WTA sailkapenean lehen 240en artean egon behar zara. Iazkoa Australiako Irekia hasi zenerako ez nengoen horien artean, 390. postuan-edo nengoen. Gero puntuak lortzen joan nintzen eta beste hiruetan parte hartu ahal izan nuen.

Australiara iritsi eta lehen partida heldu aurretik, zertan ariko zara?

Alde batetik, entrenatu egingo dut, eta bestetik, ordu aldaketara ohitu beharko dut. Hamar orduko aldea dago. Klima ere ezberdina da: han bero handiagoa egiten du eta horretara ere ohitu egin behar gara.

Zer suposatzen du zuretako Australiako Irekian parte hartzea?

Berezia da. Partida guztiak zailak izango dira, edozein dela aurkaria ere. Lehenengo partidaren zentratuko gara eta hori irabaziz gero, hurrengoan.

Txapelketa horretan zementu gainean jokatzeko da, eta hori ez da zure gustukoena, ezta?

Ez, nahiago dut buztin-lurrekoa, baina zoru guztietara ohitzen joan behar gara.

2011 urtearen nolako balantzea egiten duzu?

Uste dut oso ona izan dela. Nire asmoa sailkapenean 200. postu inguruan amaitzea zen eta 170. era iristea lortu dut. Abuztuan lortu nuen 200eko maila pasatzea eta gero denboraldia ondo amaitu dut. Jokoaren aldetik ere pozik nago.

Zeremaitza lortu dituzu?

Bi torneo irabazi ditut banaka, Madril eta Mallorcan, eta beste bi banaka.

Eta zein izan da lorpenik handiena?

Espainiako Txapelketan finalerdietara iritsi zinen, esaterako.

Espainiako Txapelketaren finaleira iristea ez da orain garrantzitsua. WTAren barnean dauden txapelketak garrantzitsuagoak dira. Marbellako txapelketan fi-



HITZA

Lara Arruabarrena ◊ Tenislaria

Emakumezko Tenislari Profesionaleko Elkartearen (WTA) 170. postuan hasi du urtea Lara Arruabarrenak. Sailkapenean aurrera egiteko lehen pausoa Australiako Irekian eman nahi du.

«Aurten lehen ehun postuetan sartzeko zaila da, baina aukerak ditut»

nal laurdenetara iritsi nintzen eta hori izan da WTA sailkapenerako emaitza garrantzitsua. Txapelketa horretan puntu gehiago lortu nituen eta maila handiagoa zegoen.

«2011 oso urte ona izan da; helburua lehen 200 postuetan sartzeko zen eta 170. amaitu dut»

«15 urterekin hona etortzea gogorra da, baina banekien horrela izango zela»

Noiz esan daiteke tenislari bat profesionala dela. Zure kasuan, WTA sailkapenean egoteagatik edo lortutako diru sariengatik?

Hainbat modu daude hori neuritzeko. Nik uste dut profesionalak zirkuituan gauden guztiak gara. Tenislari bakoitza maila ezberdinean, baina denak gara profesionalak.

Hamabost urterekin joan zinen Tolo-

satik Bartzelonara, San Cugatoko errendimendu altuko zentrora. Zer moduz lau urte eta erdi hauek?

Azkar pasatu dira. Gogorra izan da, baina banekien hona etortzeko hori suposatzen zuela. Hemen ditudan lagunak ere hamabost urte ingururekin etorri ziren hona.

Noiz arte egongo zara bertan?

Abuztura arte hemen egongo naiz. Gero ez dakit federazioak beka luzatu edo kendu egingo dudan.

Tolosarekin lotura mantentzea ez da erraza izango.

Azkenean pixka bat galdu egiten da, baina saiatzen naiz lagunekin hitz egiten eta Tolosara joaten naizenean beraiekin egoten saiatzen naiz.

Orain, gainera, asko bidaiatu behar duzu, txapelketa batetik bestera. Australia eta gero beste bira bat egingo dut, lau astetako. Kolonbiara, Calira eta Bogotara; eta Mexikora, Monterrey eta Acapulcورا, joango naiz.

Eta nola eramaten da bidaiatzearen kontu hori?

Gustatu behar zaizu, gogorra delako batetik bestera ibiltzea. Niri, behintzat, gustatzen zait.

Turismo egiteko aukera handirik ez duzu izango, ezta?

Batuzean bai, baina oso gutxitan. Buru belarri txapelketan egon behar zara.

«Tenisean fisikoki eta psikologikoki indartsua izan behar zara»

«Jokoa hobetu behar duzu profesionaletan, bestela handien aurka erraz galtzen da»

Zer asmo duzu aurtengorako?

WTako lehen ehun postuetan sartzeko nahiago nuke. Hori da helburu nagusia. Zaila da, baina helburua lortzeko aukerekin ikusten naiz eta saiatuko naiz.

Tenisean psikologikoki indartsua izatea zenbateraino da garrantzitsua?

Psikologikoki eta fisikoki indartsua izan behar zara, eta alde psikologikoa oso garrantzitsua da. Batzuetan partidak azkar bukatzen dira, baina besteetan hiru ordu iraun dezakete, eta hori usen jakin behar da.

Sailkapenean lehen 100 postuetan sartzeko gain, txapelketaren bat bazu duzu begiz jota?

Ez dut asmo zehatzik txapelketek dagokionez. Batzuetan txapelketa jakin bat irabazi nahi duzu, baina aste horretan ez bazara ondo sentitzen... Zaila da horrelako aurreikuspenak egitea.

Profesional mailan aritzeak, jokoan nabaritu beharko da, ezta?

Zure jokoa hobetu behar duzu, bestela ezin duzu handien kontra ondo jokatu, oso erraz galtzen duzu. Jokoaren alde guztiak hobetu beharra daude.

Tenisean ohikoa izaten da oso gaztea izan arren, goi mailan egotea.

Nik uste dut hori lehen gehiago gertatzen zela. Orain ez daude jokalaririk asko emerretzi urterekin hor goian sartzen direnak. Batzuk badaude, baina gutxi dira. Orain nik uste dut heldutasun handiagoa behar izaten dela maila horietara iristeko.

Bestalde, ez da ohikoa urte askotan goi mailan egotea.

32 urterekin dagoeneko mugan zaudela esan daiteke. Kirol askotan gertatzen da hori.

Antonio Castella da zure entrenatzailea hasieratik.

Bartzelona etorri nintzenean federazioak jarri zidan entrenatzaile. Niri gustatu zitzaidan eta berarekin jarraitzen dut. Gustura nago berarekin.

Tenisa bezalako kirolean, bakarka aritzen zarela, entrenatzailearen papera garrantzitsua izango da, ezta?

Garrantzitsua da, bai hobetzen laguntzeko, bai momentu txarrak pasatzen dituzunean.

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko hainbat herritan harrera beroa egingo diete Errege Magoei eta euren laguntzaileei, gaur, desfileak arratsalde z ingo badira ere, goizean ere haurrentzako ekitaldiak izango dira.

Errege itsurako hiru mago

Asier Imaz

Melxor, Gaspar eta Baltasar hildoa dira. Ekiak urri-etik abiatu ziren hiru magoak, eta gaur iritsiko dira Tolosaldera eta Leitzaaldera, errege itsura hartuta. Euren batera laguntzaileak etorriko dira, eta haren lana ere ez da naka: haurren gutunak bildu, Errege Magoei eraman, opariak garraiatu...

Tolosan bilbake oparos antolatzen dute Gaste Guneoko partaide diren Trente eta Kirikiño aisiak ditzaiek. Eurenkin 300 haur inguruk hartuko dute parte desfileen. Horrez gain, erraldioak, bertako produktiak, kriselhaak, jaitzak, Tolosaoko Masha Banda eta abar egongo dira ibilbidean. Desfileko partaide guztiak 18:15ean Plaza Zaharrean elkarituko dira. Hiru Errege Magoak, aldi, laskenatik behera etorriko dira. Anoaetan, Jose Leon Larrairen erakusketak ikusteko aukera eguna Errege Eguneko izango da, hau da, gaurkoa. Bere azken bost urteetako egur lanak eta jaitzak ikusgai egongo da Harpele kaleko uda lokalean, 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

Zintzarri jotzea

Leitzaoko kaleak zintzarritz bete ziren atzo gauerain. Urteroko ohiturari jarraituz, herriarriak Zintzarri Jotza egun zuten auzo guztietan. Oinez, pausoen, ibili ziren lide gehienek, baita soinu handiago ateratzen, aldiak behar korrika egun zintzarri ere izan zen. Gaur egun, bihar amoneko Errege Magoen desfilearen oharpen gisako ekitaldi modura hartzen da. Baina nekio hitza gehengoa da. Jada nekio garai hota eta ilunak igarotzeko, hurrengo ematen laguntzeko jotzen omen zuten zintzarria. Ekiak ditzaiek honak hurrengo gutun jarraituenaz izaten du, haurrak ateratzen baitira orduan auzoan barrena zintzarriak jotzen.



Anoaetan, Jose Leon Larrairen erakusketak ikusgai ditzaiek.

Laguntzaileek euren lana egin dute Villabonan

Haurren gutunak jasotzerako garaian Ori Merkatarri Elkartearen laguntza izan dute

A. Imaz Villabona

Errege Magoak iritsi aurretik Villabonara laguntzaileak iritsi ziren, haurren gutunak bilduta. Ori Merkatarri Elkartearen laguntza izan zuten laguntzaile hauek, elkarrekin antolatuta baituzten elkarrekin. Lehenik Tolosaldeko plazan egon ziren, eta ondoren

Berdura plazan. Herriko haurrak, txantxo-txantxo, bertan gertatu zuten euren gutunarekin. Bertan, opari zerrenda luzea zuten idatzirik batzuk, besteek, ez hainbeste txantxoekin, baita gutxiak zer nahiz zuten argi zekiten. Orain Melxor, Baltasar eta Gasparen txantxo izango da. Laguntzaileen eskutik gutunak jasoko dituzte, eta ondoren banatzen hasiko dira. Villabonara Amasatik harrera jaitziko dira, 18:00etan. Herriko plazan, opariak eta gozokiak banatuko dituzte haurren artean, eta itzulera bitan, herritar barrena itzulia emango dute Villabonara gutriak agurtzeko.



Tolosaldeko plazan Errege Magoen laguntzaileak egon dira. A. Imaz

gabonetan, oparitu hitzaren jertsea

Hababentzako jertsea: **lehen 29,5 €** orain, eskaintza berezia **25 €**

902-82 02 01

www.harporetza.com/hitza

Errege Magoen desfileak (Urtarrilak 5, gaur)

ALEGIA

• **11:00etan.** Txokolate jatea. Ondoren, jolasak egingo dituzte plaza. Egunaldi txarra egiten badu, frontoian egingo dituzte. • **19:00etan.** Errege Magoak Orendango biotetik jaitziko dira. Larritan auzo zaharkitu ondoren, San Joan kalea hartuta herri gunea zeharkatuko dute. Ibilbidea plazan bukatuko dute eta gero udalteekeko balkoetik hitz egingo dute Erregeek.

AMEZETA

• **18:00etan.** San Martin aldetik jaisten dira Errege Magoak eta herra zeharkatu ondoren, 18:45ak aldera, frontoira iritsiko dira. Bertan gozokiak banatuko dizkiete haurrei.

ANOETA

• **19:00etan.** Basagin menditik aterako da Erregeen kabalagata. Erregeak traktorean iritsiko dira herriko plazara. Anoaetako txistulariek lagunduta. Bertan gozokiak banatuko dituzte.

ARESO

• **17:30ean.** Errege Magoak etxez etxe ibiliko dira eta haurrei opariak banatuko dizkiete.

ASTEASU

• **20:00ean.** Elamendetik Erregeak herria jaisten hasiko dira Olenzerorekin batera. Udalteeke arkupeetara 20:00ak aldera iritsiko dira. Bertan jaitzuta biziduna izango da eta eskaintza egingo dute. Bertolarlen, Asteasuko Abesbatza eta herriko dantzari txikien salok izango dira. Ondoren, aurrez gutuna bidalitako haurrei opariak banatuko dizkiete Errege Magoak.

BERASTEGI

• **19:00etan.** Errege Magoak herriko plazara iritsiko dira Urdinain mendiko Etxon-beni baseritik. Plazan, Olenzero eta jaitzuta biziduna egingo dira, eta Erregeek eskaintzak egingo dituzte bertan. Berastegiko haurrak ere berdin egingo dute, talo, gaztaina, baraki eta abarrek. Ondoren Baltasar, Mel-



Errege Magoen ibilbidean herritar ugari elkartu zen Iaz Tolosan. ANEL ALDICO

txor eta Gasparek opariak emango dizkiete urteel.

BERRORI

• **10:00etatik 13:00etara.** Urriko opariak jasoko dira. • **18:30ean.** Larre eta Seskeia baserrietik jaitziko dira Errege Magoak eta herra zehar ibilbidea egingo plazara 19:15ak aldera iritsiko dira. haurrei opariak banatzen. Kabalgata irauten duen bitartean, arume baten txokolateko txantxo salduko dira.

BIDEGOIAN

• **19:00etan.** Errege Magoak Goizak aldetik Bidanki frontoira iritsiko dira. Bertan jaitzuta girotua egingo da, hainbat animalia eta gaztaria jatearekin.

IRURA

• **17:00etan.** San Migel plazan txokolate beroa banatuko dute bizkotxoekin. • **18:00etan.** Kalek kale. Errege Magoen etorrera ospatuko

dute, ondoren herriko plazan hauek opari banaketa egingo dute.

LEITZA

• **18:30ean.** Errege Magoak Herriko Baserria joango dira. Bertan, Jaki abesbatza saioa eskaintuko du. Zaldietara igo ondoren, Erregeak herriko plazara joango dira, eta bertan, gurtuzten dren haurrei gozokiak banatuko dizkiete.

LIZARTZA

• **19:30ean.** Zelaian aldetik Erregeak eta euren laguntzaileak herria jaisten hasiko dira. Abereen gainean jarririk, herria zeharkatu eta frontoira helduko dira. Bertan dantzari txiki ongi etorria egin ondoren opariak banatuko dituzte.

OREXA

• **17:30ean.** Errege Magoen desfilea abiatuko da, etxez etxe haurrei opariak banatuko asmoz.

TOLOSA

• **16:30ean.** Errege Magoak lur-marengi egotzara joango dira eta haurrek beraien egoteko aukera izango dute. • **18:30ean.** Erregeak Iraskundik behera jaisten hasiko dira. Tolosa kaleetan barrena ibili ondoren, Trianguloa plazan atsedera hartuko dute. Gaztelako arkupean, 18:45ean, eskaintza egingo dute. Erregeak ohiotzara igoango dira, eta Uda-beni dantza txikiak agura dantzatzuko diete. Kabalgata Korre kaltetik jarraituko du, eta Gornik plazatik Pablo Goroasbel kalera joango dira. Atadi kalea zeharkatu ondoren, Zerkausian amaituko dute ibilbidea. Hemen, haurrek Errege Magoekin egoteko aukera izango dute.

VILLABONA

• **19:00etan.** Amasatik behera Errege Magoen desfilea jaitziko da. Plazan opariak eta gozokiak banatuko dituzte. Ondoren, herria zehar itzuli bat emango du kabalgata.

TOLOSALDEKO HITZA bertako egunkaria

902-82 02 01

tolosaldeko.hitza.info

eraman/ibaki zure datuak:

Abia erosteko 5 Euro, zehaz 20000 Euro.

TOLOSALDEKO HITZA bertako egunkaria

egin zaitetz harpidedun!

beharraketa da datu guztiak berretzea

902-82 02 01

tolosaldeko.hitza.info

eraman/ibaki zure datuak:

Abia erosteko 5 Euro, zehaz 20000 Euro.

Etorkinek euskara doan ikasteko aukera izango dute

Alegiako Udalak gizarte zerbitzuen laguntzarekin batera, etorkinentzako euskarazko eskolak antolatu ditu

Otsailetik maiatzera izango dira, eta izena hilaren 13a baino lehen eman behar da

Eneritz Maiz Alegia

Alegian bizi diren etorkinek euskara doan ikasteko aukera izango dute, herrian bertan. Alegiako Udalak gizarte zerbitzuen laguntzarekin batera, euskara ikasteko eta alfabetatzeko eskolak antolatu ditu. Otsailetik maiatzera izango dira, eta esperientzia pilotu bezala baliatuko dute lehen ekimen hau.

Eskolak otsailean hasiko dituzte, eta etorkinek izena hilaren 13a baino lehen eman behar dute, kultur etxean edo gizarte zerbitzuetan. Astean bi ordu izango dituzte, eta klaseak astearte eta ostegunetan izango dira. Alfabetatzeko eskolak 15:00etatik 16:00etara, eta euskarazkoak 20:00etatik 21:00etara izango dira. Liburutegian izango dira, eta Kzgunea ere erabiliko dute. Behin taldeak osatuta, moldagarri izan daitezke talde hauek, guztien artean adostuta.

Inguruko herri txikietan bizi diren etorkinek ere izena emateko aukera izango dute.

Alegian, aste honetan argitaratutako datuek erakusten duteenez, 126 etorkin daude errolatuta; horietatik 29 Europar Batasunekoak dira, eta 97 Europaz kanpokoak. Afrika, Hego Amerika eta Europa ekialdekoak dira gehienak. Maiatzean, dena ondo ateraz gero, kulturen arteko festa batekin bukatzeko ideia dute.

• alegiadea@hitza.info

↓ Zenbakia

126

■ **Etorkinak.** Aste honetan ateraren datuen arabera, Alegian 126 etorkin daude errolatuta. 29 Europar Batasunekoak dira eta 97 Europaz kanpoko nazionalitate dutenak.

Unai Iraola • Alegiako alkatea

«Herrian taldea sortzeko beharra sentitu dugu»

E. Maiz Alegia

Unai Iraola Alegiako alkateak otsailean martxan jarriko duten esperientzia pilotu berri honen nondik norakoak azaldu dizkio HITZA egunkariari.

Nolatan hartu duzue euskarazko eta alfabetatzeko eskolak jartzeko erabakia?

Herrian dugun atzeritar kopurua ikusita, eta gizarte zerbitzuetako langileekin hitz eginda zinegotziok zerbait egiteko beharra sentitu dugu. Batez ere, etorkinek herrian hartu-emanak behar bezala izateko hizkuntzarekin dituzten mugak ikusten genituen. Herriko komertzioetan lan egiten dutenen aldetik ere, herritarrekin harremanak izateko dituzten zailtasunak eta euskararen beharraz jabetu gara.

Eskolak herrian bertan izateari eman diozue garrantzia orduan.

Bakoitzaren bizitza baldintzengatik ezin izan dute euskarako eskolak hartzea Tolosara joan, eta herrian taldea sortzeko premia ikusi dugu. Era berean, etxeko eremutik gutxi ateratzen direnengana ere zuzendu nahi dugu, eta herrian bertan izateak lana erraztu du.

Bi eskola bereizi dituzte: euskara ikasteara eta alfabetatzeara.

Herrian dugun etorkin talde bat alfabetatu gabea da, ez dute oinarriko alfabetiziorik. Eta gainera, nahiz eta orain Euskal Herrian bizi, errola asko aldatzen duten familiak izaten dira. Beraien kabuz trebetasunak har-



E. MAIZ

tzen joateko gaztelaniako hastapen klaseak jartzea pentsatu genuen, eta Tolosako Helduen Eskolarekin harremanetan jarri ginen. Bi behar horiei begira antolatu ditugu klaseak, eta otsailean hasi eta maiatza bitartean esperientzia pilotu bezala egingo ditugu.

Doan izango dira eskolak.

Bai. Euskara ikasi nahi duena, edo gaztelaniako hastapena behar duena klasetara etortzea da gure helburua. Faktore ekonomikoa aitzakia ez izatea nahi genuen. Errekurtsu gutxi ditugu, eta bi hezitzaile bilatu ditugu, boluminario moduan ariko direnak. Oso jarrera ona agertu dute, eta hala ere, udaletik diru laguntza ezberdinak lortzen saiatuko gara.

Laguntzaren bat jasotzea ona izango da, ezta?
Bai. Auzolanaren kultura bultzatu behar da, baina honelako proiektu bat iraunkorra izatea nahi baldin bada, beti ezin duzu

jendearen borondatearengan oinarritu.

Etorikinekin harremanik izan duzue?

Beraiekin bilera bat egin dugu gizarte zerbitzuetatik bideratuta. Proiektuaren helburuak eta asmoak azaldu zitzaizkien, eta jarrera oso ona agertu dute. Oso eremu euskaldunean bizi gara, eta beraietako batzuk euskara jakitearen garrantziaz konturatu dira. Lanerako izateaz gain, beraien seme-alabak euskarazko hezkuntza jasotzen dute eta etxeko lanetan lagundu ahal izateko behar dute.

Astean bi ordu egingo dituzte.

Bai, bina ordu izango dituzte. Gaztelaniako hastapenak arratsaldeko lehen orduan jarri ditugu, batez ere, emakumeak haurrak eskolan dauden bitartean ikastera joan daitezten. Eta euskarakoak, iluntzetan izango dira. Bi klasetara mugatu dugu hasieratik ez ditugulako erre nahi, eta bi horietara gogoarekin joatea.

Bederatzi urteko kartzela zigorra ezarri diote Manex Castro billabonatarrari

Mikel Garmendia, berriz, absolbitu egin dute; Lazkaoko PSEren egoitzan bonba jarri izanagatik epaitu dituzte

Erredakzioa Villabona

Espainiako Auzitegi Nazionalak bederatzi urteko kartzela ezarri dio Manex Castro billabonatarrari, 2009. urtean Lazkaoko PSE alderdiaren egoitzaren aurka ETArekin bonba bat lehortu zuelakoan. Mikel Garmendia billabonatarra ere kasu berean epaitua izan da, «ekintza horien kolaboratzaile izatea leporatuta», baina Madril-



Herritarrek elkartasuna adierazi zieten Castro eta Garmendiari atxilotu zituztenean. HITZA

go auzitegiak absolbitzea erabaki du.

Fernando Garcia Nicolas magistratuak zuzentzen duen auzitegiak atzo eman zuen sententzia

jakitera. Bertan, PSEren Lazkaoko egoitzaren aurka 2009. urteko otsailaren 23an ETArekin bonba bat lehortu izana egotzen zaio Manex Castrori, eta bederatzi urteko

kartzela zigorra ezarri. Billabonatarra 2009ko martxoaren 1ean atxilotu zuten, eta handik egun gutxira Mikel Garmendia herriki-dearekin gauza bera egin zuten.

2011. urteko azaroaren 10ean egin zuten euren aurkako epaiketa Madril. Bertan, Manex Castrok adierazi zuen Mikel Garmendia ez zuela Lazkaoko ekintzarekin zerikusirik izan. Horren ondorioz, eta «bestelako lekuko frogetan oinarrituta» absolbitu egin du Auzitegiak Garmendia.

Beste 382 urte

Castroren kasuan, Auzitegi Nazionalak adierazi duenez, konfiantza hartu du 2009an Hernaniko Santa Barbara mendian kokaturiko lehergaia eta urte bereko Lazkaoko leherketan erabilitako material berarekin eginak izan zirela. Hernaniko leherketarengatik Castro epaitua izan zen eta 382 urteko kartzela zigorrera kondenatua. Une honetan, Valentziako Picassent espetxean aurkitzen da Castro.

• tolosaldean@hitza.info

3,7 milioi euroko aurrekontua izango du udalak 2012an, inbertsioetarako igogerarekin

Ura tratatzeko estazioa egingo dute Amazabal auzoan; gastu arruntak bere horretan utzi dituzte

Iñigo Terradillos Leitza

Leitzako Udalak 3.738.850 euroko aurrekontua izango du 2012. urterako. Iragan ostiralean eginiko ohiko udalbatzaren bilkuran onartu ziren, Bilduren aldeko bozkekin eta UPN (Union del Pueblo Navarro) eta DNE (Derecha Navarra y Española) alderdien abstentzioarekin. Batetik, gastu arrunta bere horretan mantenduko dela azpimarra daiteke, eta bestetik, inbertsioetan igoera nabarmena izango dela.

Bada, pasa den urteko aurrekontuarekin alderatuz, gastu arrunta berdin mantentzen da, ia aldaketarik gabe. Oier Eizmendi Leitzako alkateak azaldu duenez, «zerbitzu publiko guztiak mantentzeko ahalegina egin du udalak, hala nola, Haur Eskola, Okile tailerra, Gizarte Zerbitzua, Euskara zerbitzua, UEMA, Udalbiltza, Kultura zerbitzuak...». Hala, helburu horretaz gain, aurrekontuen garapenean «sarrera eta irteeren arteko oreka mantentzea ere ezinbesteko» izan dela gehitu du alkateak.

Igoera nabarmena

2011. urterako aurrekontuarekin (2.954.789 euro) alderatuta, igoera nabari da, ziurrenik, inbertsioen atalean egon den igoeraren eraginez. Eizmendik dioenez, «Azpiegitura Planak hainbat inbertsio egitea eskatzen zuen aurtengorako, eta horregatik eman da igoera hori».

Bi dira Azpiegitura Planaren



Zerbitzu publikoak bere horretan mantenduko ditu Udalak. A. IMAZ

barruan egingo diren obrak. Batetik, Amazabal auzoan urbanizazio lanak egingo dituzte, eta 779.560 euroko kostua izango dute. Eta, bestetik, ETAP edo Edateko Ura Tratatze Estazioa egingo dute, 652.543 euroko kostuarekin. «Europako legediaren arabera, 2020. urterako deposituan sartu aurretik urak tratatua egon behar du; guk une egokia dela orain ikusi dugu, eta diru laguntza batzuk ere zehaztuta ditugunez, aurrera egitea erabaki dugu», dio Leitzako alkateak.

Azpiegitura Planetik aparte beste lan batzuk ere aurreikusten dira onartutako aurrekontuetan. Horien artean, 52.000 euroko kostua izango duten urbanizazio lanak daude, eta mendiko garbiketaren lanetan, berriz, 45.000 euro.

Bada, inbertsio handiak eta ez hain handiak kontuan hartuta, inbertsioen atala 1.555.223 eurokoa da.

Udal langileak

Bestalde, 2012ko aurrekontuaz gain, 2012ko plantila organikoa ere onartu zuen udalbatzak aho batez. Beraz, zehaztuta geratu da funtzionario nahiz aldi baterako langileen zerrenda.

Alkatearen soldata

Ia zazpi hilabete igaro dira Oier Eizmendik alkate kargua hartu zuenetik. Orduetik ez du ordainsaririk jaso, baina orain, ohiko bilkuran hala onartu ostean, lanaldi erdiko dedikazioarekin ariko da udaletxean. Bere lantokian jasotzen duen soldataren erdia jasoko du, urtean 12.800 euro gordin.

Bestalde, Jose Antonio Olaetxea Bilduko zinegotziaren kargu uztea ere onartu zen ostiraleko bilkuran. Lan arrazoiak direla medio utzi du, eta bere ordezkoa izendatzeko prozedura legala abiarazi dute.

◉ leitzaldea@hitza.info

→ Laburrak

Musika Eskolaren emanaldiak, gaur eta bihar

TOLOSA ▸ Gabonetako egitarauaren barruan, Tolosako Musika Banda Errege Magoen desfilean izango da gaur, Zumardi txikitik abiatuta, eta bihar, Udal Txistulari Bandarekin batera emanaldia eskainiko du eguerdian, Musika Eskolan.

Aerobik eta pilates ikastaroak martxan

IKAZTEGIETA ▸ Ikaztegieta Udalak herritarrei kirola egiteko ikastaroak eskaintzen dizkie. Urtarrileko lehen hastetik martxan dira aerobik eta pilates ikastaroak. Aerobik, astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara, eta pilates, asteartean eta ostegunetan 09:00etatik 10:00etara izango da. Izena emateko, klase orduetan kiroldegira gerturatu behar da.



Iban Amondarain eta Luis Mari Alkorta. HITZA

Amondarain eta Alkorta nagusitu dira Txaraman

Euskal Herriko Mus Txapelketan aurrera egitea lortu ondoren, herrialde mailakoa jokatu dute orain

A. Imaz Leaburu-Txarama

Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketak jokatzeko ari dira eskualdeko herrietan. Ostiralean, Leaburu-Txaramako herritarrek azken honetako elkartean jokatu zuten. Iban Amondarain Uriartek eta Luis Mari

Alkorta Uriartek osatutako bikotea izan onena, finala eurek irabazi baitzuten. Kanporaketari zegozkion sariez gain, hurrengo fasea sailkatzeko txartela eskuratu zuten.

Herrietako kanporaketa gainditzen duten bikoteek, herrialdekoan jokatzeko, eta zazpi lehia hauek, otsailaren 24, 25 eta 26ean izango dira. Finalerako pasea, aldiz, herrialde bakoitzetik gutxieneko ordezkari batek lortuko du. Gainerako bikoteak parte hartzearen arabera finkatuko direla azaldu dute antolatzaleek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



13°
12°

| | |
|-------------|----------|
| GOIZA | EURIA |
| ARRATSALDEA | LAINTUTA |
| BEROENA | 14° |
| HOTZENA | 11° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zailtzentz argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Programazioa

28 KANALA

- **12:30.** Musti. ■ **13:00.** On ein!
- **13:30.** Tolosaldean Gaur.
- **14:00.** Kafe t'erdia Abaltzisketa. ■ **14:30.** 28 Klip. ■ **15:00.**

Erosi eta ikasi. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Walker Bodaio. ■ **16:30.** Ur eta lur. ■ **17:00.** Ikusmira. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Bizitegia. ■ **18:30.** BIT. ■ **19:00.** Antzerkia. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Bideo Klipak.

TXOLARRE IRRATIA

(107,6 edo www.txolarre.org)

- **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia; eskualdeko Errege Magoen desfileen inguruko informazioa. ■ **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina; Egin Dezagun Bidea ekimenaren inguruko informazioa
- **13:00.** Lehiaketa eta disko eskainiak. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ **16:00.** Gazte Zaparrada. ■ **17:00.** Kabitik plazara saioa. ■ **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotza magazina eta albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia. ■ **21:00.** Berbenir.

Abaltzisketak irabazi du Ikaztegiaren aurkako futbol partida

Lagunarteko partida 1-7 amaitu dute; Tolosako Shanti Txapelketa baliatuz antolatu dute

Erredakzioa Ikaztegieta

Futbol partida berezia jokatu zuten atzo, Ikaztegiaren frontoian, Abaltzisketako Txalburuk taldeko eta Ikaztegiaren gazteek. Norgehiagoka lagunartekoa bazen

ere, futbolariak serio hartu zuten eta jokaldi ederrak ikusi ahal izan ziren. Partida 1-7 amaitu zen, eta ondoren, askaria egin zuten.

Antolatzaileen hitzetan, Tolosako Shanti Txapelketa aprobeztatu dute partida hau antolatzeko, izan ere, taldeak osatu dituzte aipatu lehiaketarako eta honi nolabait jarraipena ematea pentsatu dute.

Era berean, aurtengoa eredu hartuta datozen urteetan ere herri txikien arteko partidak antolatzeko nahia azaldu dute.




Ikaztegieta eta Abaltzisketako taldekideak. E. MAIZ

Agurrak



Urte askoan!

Maria Dolores Iraola (Anoeta).
Gaur urteak. Zorionak eta muxu handi bat senarraren partetik.



Urte askoan!

June. Gaur urte bete. Zorionak familia guztiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info



Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldearen Inauterietako Astelenitako konpartsan parte hartu nahi dutenek 650 87 97 04 telefono zenbakira deitu behar dute.

■ **Tolosa.** Pello Odriozola euskal presoaren askatasuna eskatzeko elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean Triangulogan, *Pello Lizardira!* lelopean.



ERAKUSKETAK


■ **Tolosa.** *Eсна-bidean* erakusketa Aranburu jauregian, hilaren 14a bitarte. Askotariko lanak bildu dituzte: argazkiak, ilustrazioak, bideo bat ere badago ikusgai...

■ **Tolosa.** *Baserritik Zerkausira* argazki erakusketa Aranburu jauregian. Hilaren 21a bitarte ikusi daiteke.

■ **Aldaba.** Intxaur auzo elkarteak auzoko argazki zaharrak bildu dituen erakusketa prestatu du. Irudiak urtarrila bukaera bitarte ikusi daitezke, elkarteko liburuetan.

TXOTXONGILOAK

■ **Tolosa.** Jada eskuratu daitezke hilaren 7an Topic zentroan Angeles de Trapo taldeak eskalniko duen Dickensen *Un cuento de Navidad* lanaren *El señor Scrooge* moldaketarako sarre-rak. Emanaldia 18:30ean izango da, eta hurrek 4 euro ordaindu behar dute, eta helduek 7 euro. Familia ugarietan, aldiz, hurrek 3 euro ordaindu behar dute, eta helduek 5. Sarrerak Topic zentroko txarteldegian, edota www.topicitolosa.com-en. Familia ugariak, hala ere, Topic zentroko txarteldegian soilik eskuratu ahal izango dituzte sarre-rak.



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.

■ **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudenda.

Ibarran: Lurdes liburudenda.

Tolosan: Aramburu liburudenda, Elkar liburudenda, Babel liburudenda eta Elkartasun denda.

Villabonan: Kazetaria liburudenda.

- **HITZAko bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuk, 25 €, harpidedunek 20 €.

